

**2014ko azaroaren 26ko OHIKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA**

**DEIALDIA: LEHENA  
HASIERA ORDUA: 20.05  
BUKAERA ORDUA: 20.20**

**Bertaratutakoak:**

- 1.- Jesus Maria Fullaondo Alzibar.
- 2.- Leixuri Arrizabalaga Arruza.
- 3.- Maite Lekanda Bilbao.
- 4.- Vanesa Alvarez Zorrilla.
- 5.- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga.
- 6.- Maite Lekanda Bilbao.
- 7.- Mikel Larrazabal.Zurbanobeaskoetxea.
- 8.- Unai Arruza Elorduy.
- 9.- Naiara Beldarrain Fullaondo.

**Idazkaria:** Iker Jaka Arratibel

Ez da etorri baina abisua eman dute bere alderdikideek:

- Unai Arrizabalaga Urrutia.

**1.- Arteko akteen onarpena.**

2014ko urriaren 29ko ohiko osoko bilkuraren akta bertaratuek aho batez onartu dute.

**2.- Dekretuak.**

<b>2014/176</b>	20/10/2014	F.D.E.S.A-ri zirkulazio erreglamendu orokorra urratu duela eta isuna ezartzen duen dekretua.
<b>2014/177</b>	21/10/2014	J.E.E. andreaki Azaroaren 8an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
<b>2014/178</b>	21/10/2014	R.A. jaunari urriaren 26an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
<b>2014/179</b>	21/10/2014	I.L.B. jaunari urriaren 24an afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
<b>2014/180</b>	21/10/2014	F.P.T. jaunari azaroaren 1ean afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
<b>2014/181</b>	24/10/2014	A.G.B jaunari urriaren 24an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
<b>2014/182</b>	28/10/2014	I.G.O. andreaki azaroaren 23an bazkari eta afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
<b>2014/183</b>	28/10/2014	Y.H.M. andreaki azaroaren 14an afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.

2014/184	28/10/2014	Z.G.U. andreari azaroak 11an egun osorako txokoa erabiltzeko baimena emonaz
2014/185	28/10/2014	C. enpresari "behartzeko isunak" jartzeko.
2014/186	28/10/2014	C. enpresaren espediente administratiboaren erresoluzioa emoteko.
2014/187	29/10/2014	Hurrengoko ordainketak onartzen dira.
2014/188	03/11/2014	K.A.L.ri azaroaren 6an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/189	03/11/2014	G.K.T.ri azaroaren 7an afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/190	04/11/2014	E.L.O. andreari azaroaren 18an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/191	06/11/2014	N.A.U.ri azaroaren 15ean afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/192	06/11/2014	I.G.L.ri azaroaren 22an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.

Ez dute ezer esateko. Jakitun geratu dira.

### **3.- BAKE EPAILEA IZENDATZEKO PROPOSAMENA**

Alkateak hitza hartzen du adierazteko Bake Epaille titular gisa zegoen pertsonaren heriotza dela eta Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenaren eskariz Bake Epaille titular berri bat hautatzeko hautapen-prozesu bat egin behar izan dela.

Gero adierazten honen inguruan azaroko informazio batzordean jardun zutela eta bertan erabaki zala osoko bilkurak onartzeko Aitzol Larrabeiti Uriarte jauna Bake Epaille titular gisa eta hau onartzen bada Bake Epaille titularraren lanpostua uztea suposatuko du eta Jon Ander Fuldain Artetxeren izendapena ordezkotako Bake epaille bezala proposatzea aurrekoa gertatuko balitz Bake Epaille ordezkotaren postua bete al dadin.

Udalbatza Osoak, aho batez, ondoren adierazten diren hautagai hauen izendapena Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenari proposatzea erabakitzen du:

Bake Epaille titularra:

Aitzol Larrabeiti Uriarte Jn.

Bake Epaille Ordezkoa:

Jon Ander Fuldain Artetxe Jn.

### **4.-AZAROAK 25 EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA ADIERAZPENA INSTITUZIONALARI ATXIKIMENDUA EMATEA ETA BERTAKO KOMPROMISOAK ONARTZEA HALA BADAGOKIO.**

Leixurik adierazpen instituzionalaren pasarte garrantzitsuenak irakurtzen ditu, besteak beste, udalak onartzen baditu bera gain hartzen dituen konpromisoak. Onartutako testua hurrengo hau da:

**“AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN EREDUA:**

## **EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Azaroaren 25a 'Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna' da. Hori dela eta, Gatikako Udalak bere gaitzespen irmoa erakusten du indarkeria sexistako agerpen mota guztien aurrean; izan ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen emaitza dira.

Eraso eta portaera sexistak ez dira indibiduo batzuen jarrera isolatuak, ezpada mundu osoan indarrean dagoen sistema baten parte. Sistema horren bitartez, emakumeen indarkeria ahalbidetzen da, haurtzarotik hasi eta euren bizitza osoan zehar. Hainbat neurritako jarduera oldarkor eta matxistak dira, baina denek egiten diete eraso –zuzenean edo zeharka– emakumeen osotasunari, askatasunari eta gaitasunari. Zoritxarrez, oraindik ere, emakumeen aurkako erasoak baimentzen eta legitimatzen dituzten jarrera eta portaera ugari antzematen dira gizartean; esate baterako, erasoak jasan dituzten neskek eta emakumeek jarritako salaketen egiazkotasuna zalantzan jartzea, botere-espazioetatik indarkeria hutsaldu eta justifikatu nahian eta gaiari garrantzia kendu nahian egiten diren adierazpen publikoak, edo komunikabide batzuek indarkeriari ematen dioten tratamendu azaleko eta sentsazionalista, besteak beste.

Erakunde publikoek gure jardueraren erdigunean jarri behar dugu indarkeria sexista mota oro errotik suntsitzeko ahalegina. Horretarako, beharrezkoa da programa egonkor eta jarraituak garatzea, indarkeriarik gabeko gizartea lortu ahal izateko. Era berean, programa horiek baliabide ekonomiko eta pertsonalez hornitu behar dira.

Indarkeria mota guztiak desagerrarazteko gure konpromiso aktiboan, gure herriko neska eta mutil gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko lanaren aldeko apustu irmoa egiten dugu; izan ere, herri honetan indarkeria matxistak duen eragina arduratzen gaituen errealitatea da. Hori dela eta, aurten ere, jende gaztearekin lan egiten jarraitzen dugu, Beldur Barik programaren markoan.

Erakunde publikoek arlo horretan garatu eta sendotu behar ditugu berdintasun politika publikoak, Berdintasun Sailen gidaritzapean, eta Hezkuntza eta Gazteria Sailetatik ere politika estrategikoekin indarrak batzeko ahaleginean. Hori guztia, indarkeria sexista prebenitzeko Beldur Barik programaren markoan, betiere, helburu nagusi batekin: esparru guztietatik, emakume gazteen jabeakuntza ahalbidetuko duten eta desberdintasun eta indarkeria egoeren aurrean erantzutuko duten gaitasuna sustatuko duten politikak garatzea. Politika horiek, era berean, lana eta gogoeta sustatu behar dute mutilekin, euren protagonismoari eta indarkeria matxistan duten erantzukizunari buruz, erasoak zer den eta zer ez identifikatzeko dituzten zailtasunei buruz, erasoetan daukaten parte-hartze aktiboari buruz edo eraso baten aurrean ikusle pasibo gisa hartzen duten paperari buruz.

Beldur Barik estrategia hauetan egingo den lanari esker, indarkeria onartzen duten, indarkeria justifikatzen duten edo erasoak eta emakumeenganako jarrera diskriminatzaileak hutsaltzen dituzten diskurtsoak onartuko ez dituen eta naturalizat hartuko ez dituen gizartea eratzen joango da.

Hori guztia dela eta, Gatikako Udalak konpromisoa hartu du:

- Beldur Barik programaren edukiak garatzeko, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.
- Bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzeko.

•  
Eta, era berean, herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista/matxista gaitzesteko ere.

Azkenik, gonbit egiten dizue, bereziki neska-mutil gazteei, azaroaren 25ean, 'Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna' dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

#### **5.- ESKABIDE ETA GALDERAK.**

Ez ziren egin.

Eta aztergai gehiago ez dagoelarik, 20.20an amaitu egin da osoko bilkura hau.

